



Zer da bizitza?

Irati Majuelo

Ukazinezkoa da Karlos Linazasororen luma emankorra, 1990eko hamarkadatik tai gabe ekarri ditu argitara senti-mentu, gogoeta zein fikzioak literaturaren molde guztietara. Ez ginatkeke harritu beharko, beraz, 2021ean Elkar argitaletxearekin atera duen azkenaz. Ezin izkin egin, hala eta guztiz ere, argi hari batek arreta nahi gabe bideratzen baitzitu etengabe poesia-bildumarantz, mesanotxean denbora luzez pausatutik uzteko aukerarik gabe. Ez da argi itsugarria liburuari dariona, ez fluoreszen-tea, ez artifiziala: sukaldeko baldosetan goizetik gauera mugimendu isil baina agerikoak egiten dituen argi hori baizik.

Inor gutxi idazten du 149 poemako bildumarik, eta are gutxiago, gora-behera zakarrrik gabe.

Lirikotasunez gainezka egiten duen liburua da, idazlearen sentisibilitatea hasieratik nabari duena. Izan ere, hizkuntza poetikoa- ren ezagutza alde du Linazaso- rok. Interesgarria da, bereziki, nola erabiltzen dituen euskarak



'Esaten dugun argia'

Idazlea: Karlos Linazasoro.
Argitaletxea: Elkar.

eskaintzen dituen adiera bikoi- tzak edota esamoldeak erreality- teari buelta emateko edo zuzen- zuzenean errealitytea galdeka- tzeko. Jolaserako abildadea da bilduma honen indarguneetako bat, batik bat lehendabiziko ata- lean, non fantasiarako jauziek irakurlearen adimena zabaltzen duten, ikusmen-eremua poema- tik harago irekiz: «Dena idatzita dago./ Baina munduak,/ gaurko egunak/ hitz bat falta du, (...) Hitz horri misterio/ esaten zaio,/ eta bakoitzak barruan/ dauka berea, (...) Buruz beheratu zeure soina,/ hustu patrikak eta itxi begiak:/ zerbaiz zorura erortzen bada,/ ez ezazu harrika bota».

Misterio xume horiek argitu nahian dabil Linazasoro. Hori da, finean, liburu honen muina, *zer da bizitza?* xuxurlatzen digula le- rro bakoitzean, berehalako eran- tzunik espero gabe, asmo harpa- turik gabe. Hala lantzen ditu poe- sian guztiz ohikoak diren gaiak (heriotza, eternitatea, galera, edertasuna, denboraren joana), baina egunerokotasunaren begi- rada sinpletik. Afera metafisiko-

ak, filosofikoak direnak arinta- sun sendo batez lantzen ditu, eta hori du bigarren indargune ga- rrantzitsua: hitz bat ere ez du so- bran, baina ez da kriptikoa izate- ra iristen, neurri doira hurrera- tzen da gehienetan, poemarik laburrenetan batez ere. Zenbaite- tan osatzen dituen sonetoak ge- ratzen dira, akaso, argitasun ho- rretatik urrunago.

Hortaz, sinbolo gutxiarekin (ar- gia, txoria, eurria, bidea) asko esa- tea lortzen du Linazasoro, ari- netik sakonera pasatzen diren poemak ontzea erdietsiz. Hala ere, argi da, poema guztiak ez di- rela bikainak, baina gehienek mantentzen dute irakurlearen- gan zirrara eragitearen pultsioa. Poema ugari direnez, errepika- kortasunaren arriskua hor da, eta beraz, komeni da tarteka-tarteka irakurketari arnasaldiak ematea, eta horrela, gozamina luzatzea. Bilduma honen bidez, bizitza zer den galdetzen digu belarrira Li- nazasorok, oinak lurtean ditue- naren baikortasunez, ameslaria- ren zalantzaz: «Zergatik ez ga- ren, oi, bizi hil arte».

Beldur barregarriak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Literatura emozioez baliatzen da irakurlearen eragiteko. Aski onartua den kontua da bihotzetik harrapatzen gaituzte- la liburuek, eta norbere gogoko- enen zerrenda errepasatuko bagenu, ziur naiz, irakurle, titulu horien atzean *hunkitu*, *harritu*, eta enparauak agertuko dire- la *ongi egituratu* eta *idazketa aberats* kalifikatzaileen aurretik (kasu: ez dut *ordez* esan, *aurre- tik* baizik).

Emozioekin gabiltzala, esku artean dugun liburu honek go- gorarazten digu zein fina den beldurraren eta barrearen arteko muga, zein tarte laburra dagoen barre urduariaren eta beldur kitzi- kagarriaren artean. Zein jostaga- rria den –esan dezagun behin- goz– gaueko iluntasunean eske- letoen konpainian ibiltzea,

herrian zehar, jolasean, norbait izutzeko irrikaz...

Adinez (oso) gaztetxoak dire- nei begira, testua letra larriz ere ematen zaigu, komikietako bun- builoak erabilia. Baina ez da ha- rritzekoa, liburua albumaren eta komikiaren arteko hibridoak iza- nik, batzuetan honen eta bestee- tan haren ezaugarriak erakusten baititu.

Ez galdu aukera azaleko zuri fosforitoaz gozatzeko, oheburu- ko argia itzaltzean.



'Eskeleto barregarriak'

Idazlea: Janet eta Allan Ahlberg.
Ilustratzailea: Janet eta Allan Ahlberg.
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni.
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

Saguen begiradapean

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Album ilustratuen generoa asko aurre- ratu da. Sortzaile asko ari dira irudi- gintzaren ahalak arakatzen, for- matu narratibo honetara ekarriz artelan ikusgarriak. Neurri bate- an teknologiari esker gertatu den iraultza, baina aldagai soziales eta kulturalak ere badi- tuena.

Kasurako, esku artean dugun Noeren Arkara ipuin hau. Ezusteko amaiera batekin jan- tzi, album honek haur txikiei erreferentzia egin ohi dieten sa- guak erabiltzen ditu protagonis- ten rola jokatzeko.

Saguen begiradapean, binaka pasatzen dira animaliak Arkara bidean, eta bikote bakoitzak Ar- kari buruzko jakingai bat bota- tzen du; esaterako, homela dio elefanteetako batek: «Euri jasak

izango dira lurtean berrogei egun eta berrogei gauez».

Liburua luzezka da, bi orrialde- ak zabaldurik ere altuagoa zabala baino, ilaran (zabalean) doazen bikoteak xehe (estu) erakusten dituen sentipena areagotzeko edo. Era berean, bolumen senti- penia eraginarazten dute collage- an oinarritutako ilustrazioek.

Azken oharra: Jainkoa nor- zer den azaltzea ia nahitaezkoa da, animaliek aipatu aipatzen dutela- ko; hasi argudioak prestatzen.



'Arkara sartzeko ilaran'

Idazlea: Antonis Papatheodoulou.
Ilustratzailea: Iris Samartz. **Itzultzailea:** Jone Irazu Garikano. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

Corca Dorcha, Irlandako es- kualde urrun eta eurtisute bateko istorioak dira eleberrikoak. Txi- rotasun etsian bizirik dira, zerri ana- dana baten kiratsaz inguratuta.

Kartzelatik kontatzen

Bonapart O Cunasa delako bat da protagonistea, eta bere oroitzape- nak kontatzen ditu. Gomutan du, esate baterako, Dublin hiririk herrixkara joan zirela gaieraren *mañtala* dotore jantziak hitzaldi- sutsuak egiten, baina azkar asko alde egin zutela, oharturik han pobregia zela pobrezia, beneta- koegia benetakotasuna.

Narratzailea, abentura beldur- garri batzuen ondoren, azkenean kartzelan sartzen dute hilketa bi- txi baten kulpaz. Presondegian, «bizitzako miserietatik libre», garai hartako memoria hunkiga- rriak idazteko aukera dauka.